

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: **GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI ZUZENDUTAKO LARRIALDIETARAKO EDO EKINTZA GIZATIAURRENTZAKO LAGUNTZAK. 2023. URTEA.**

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen xedea larrialdi kasuetan daudenentzako edo ekintza gizatiarrak egiteko laguntza ematea da baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuak edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona eta erkidegoentzako badira. Ekintzak beharrez daudenek dituzten beharren arabera gauzatuko dira eta alde batera utziko dira irizpide politikoak, interes ekonomikoak edo arraza, etnia, nazionalitate, erlijio, sexu, adin edo pentsamolde politikoa dela eta egin litezkeen baztertzeko ezker guztiak.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntza edo erakunde izan dezake, hala nola Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak (GGKE) edo erlijio-kongregazioek deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten badituzte eta beren egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra (justifikatu egin beharko da) EAEn baldin badu. Ordezkaritza iraunkorraren kasuan, bere gain hartzen du eskaera aurkezteko erantzukizun zuzena, eta EAEn duen bulegoan proiektuaren kontabilitatea, dokumentazioa eta kudeaketa mantentzeko konpromisoa hartzen du edo ordezkaritza iraunkorra EAEan baldin badute.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkeztzen diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...)

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.

Proiektu bakoitzeko, gehienez, 15.000 €-ko diru-laguntza emango da, eta proiektua 2023. urtean hasi eta amaitu beharko da.

Eskatzen eta onartzen den diru laguntzatik (zeharkako gastuak kontutan izan gabe) gehienera, %10a bideratu ahal izango da erbesteratutako langileen gastuentzat (bidaia, dietak, e.a. barne) eta zeharkako gastuentzat %7a.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da 2023-06-30 arte.

Eskaerak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.